

**EROSKI, Koop. Elk. ko.
DELEGATUEN BATZAR NAGUSIRAKO
ETA PRESTAMEN-BATZORDEETARAKO
DEIALDIA ETA GAI-ZERRENDA**

BATZAR NAGUSIRAKO DEIALDIA

Data : 2017ko ekainaren 21a
Ordua : 16:30etan (1. deialdian)
17:00ean (2. deialdian)
Lekua : Bilbao Exhibition Centre (BEC). Barakaldo (Bizkaia).

BATZAR NAGUSIRAKO EGUNEKO GAI-ZERRENDA

- 1.- EROSKI KOOP. E.ko Ohiko eta Ez Ohiko Batzar Nagusiaren eraketa.
- 2.- Bilera-akta onartzeko hiru bazkideak izendatzea.
- 3.- Sozietatearen 2016ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena, eta, kasua balitz, kontu eta kudeaketa-txosten bateratuak aztertu eta onartzea.
- 4.- 2016 ekitaldiko emaitzen banaketa
- 5.- 2017 ekitaldirako auditoreen izendapena
- 6.- Xedapen estatutario eta legalak:
 - 6.1. Ekarpenei buruzko erabakiak
 - a) "Bazkide Ohien Mendeko Finantza Ekarpentak" eskuratzea.
 - b) Sozietateak Mendeko Finantza Ekarpentak Autokartera-erregimenean eskuratzeko baimena.
 - c) Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpentak eguneratzea.
 - 6.2. Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpentak ordaintzea.
- 7.- Errekurtso Batzordea berritzea.
- 8.- Jagoletza Batzordea berritzea.
- 9.- Kontseilu Soziala berritzea.
- 10.- Kontseilu Errektorean ahalmenak delegatzea
- 11.- Norberak lekarkeena.

Halaber, Kooperatibaren Estatutu Sozialetako 8. eta 19 artikuluan xedatutakoaren arabera, bazkideek eta elkartuek berehala eta doan eskuratu ahal izango dute Batzar Nagusiaren onarpenera jarriko diren dokumentuen kopia bat. Kooperatiban ohikoa denez, Batzar Nagusiko deialdi pertsonalizatuarekin, akordioen proposamenarekin eta onartzeko bestelakoekin batera bidaliko da esandako dokumentazioa.

KONTSUMOKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETARAKO DEIALDIA

<u>GIPUZKOA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 10ean</i> <i>Ordua : 11:30etan (1. deialdian)</i> <i> : 12:00etan (2. deialdian)</i> <i>Lekua : Kursaal Jauregia</i> <i> Donosti</i>	<u>BIZKAIA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 11n</i> <i>Ordua : 17:30etan (1. deialdian)</i> <i> : 18:00etan (2. deialdian)</i> <i>Lekua : Euskalduna Jauregia</i> <i> Bilbo</i>
---	---

KONTSUMOKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETARAKO EGUNeko GAI-ZERRENDA

1. Aurkezpena.
2. Sozietatearen txostena.
3. 2016ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena.
4. 2017ko ekainaren 21eko Batzar Nagusiaren Gai-zerrenda eta akordioak.
5. Zuzendaritzaren txostena.
6. Eskari Galderak

LANEKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETARAKO DEIALDIA ETA EGUNeko GAI-ZERRENDA

LANEKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETARAKO DEIALDIA

<u>BIZKAIA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 11a</i> <i>Ordua : 10:30etan (1. deialdia)</i> <i> : 11:00etan (2. deialdia)</i> <i>Lekua : Euskalduna Jauregia</i> <i> Bilbo</i>	<u>NAFARROA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 11a</i> <i>Ordua : 10:30etan (1. deialdia)</i> <i> : 11:00etan (2. deialdia)</i> <i>Lekua : Baluarte Biltzar Jauregia.</i> <i> Iruña</i>
<u>GIPUZKOA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 18a</i> <i>Ordua : 10:30etan (1. deialdia)</i> <i> : 11:00etan (2. deialdia)</i> <i>Lekua : Kursaal Jauregia</i> <i> Donosti</i>	<u>BIZKAIA</u> <i>Data : 2017ko ekainaren 18a</i> <i>Ordua : 10:30etan (1. deialdia)</i> <i> : 11:00etan (2. deialdia)</i> <i>Lekua : Euskalduna Jauregia</i> <i> Bilbo</i>

LANEKO BAZKIDEEN PRESTAMEN-BATZARRETARAKO EGUNeko GAI-ZERRENDA

1. Aurkezpena.
2. Sozietatearen txostena.
3. 2016ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena.
4. 2017ko ekainaren 21eko Batzar Nagusiaren Gai-zerrenda eta akordioak.
5. Zuzendaritzaren txostena.
6. Eskari Galderak

**OHIKO BATZAR NAGUSIAREN
ONESPENERA JARRI BEHARREKO
ERABAKI-PROPOSAMENAK
(2017ko ekainaren 21a)**

1. EROSKI S. COOP.EKO OHIKO BATZAR NAGUSIA ETA EZOHIKO BATZAR NAGUSIA ERATZEA

Lehenengo puntu honetan, eta legezko betebeharra den neurrian, batzarraren deialdia iragartzeko eta jendaurrean jartzeko formalitateak bete direla egiaztatuko du Batzarreko Lehendakariak. Era berean, batzarrean bozkatuko diren erabakiei buruzko dokumentazio osoa bazkide guztien esku, eta zehazki, delegatuen esku jarri direla ere egiaztatuko da.

Lehenengo puntu honetan, ez da beharrezkoa inongo erabakirik hartzea.

2. BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO HIRU BAZKIDE IZENDATZEA

Urtero bezala, Batzarraren gai-zerrendaren lehenengo puntua legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betetzera bideratua dago; hau da, hiru bazkide izendatzea Batzar honetako Akta sina dezaten, Lehendakariarekin eta Idazkariarekin batera, legean jasutzen den eduki osoa eta erabakiak hartzeko modua betetzen dituela egiaztatuz.

Ezer erabaki baino lehen, ohikoa den bezala, aurreko Batzar Nagusiaren Akta onartzearen berri ematen da; kasu honetan, 2016ko ekainaren 15ean egindako Delegatuen Batzarrarena, hain zuzen ere. Akta hori legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak betez egin eta onartu zen.

Ekitaldi honen Aktarekin ere berdintsu egin ahal izateko, batzarrean dauden hiru pertsona hautatzea proposatuko da, Batzar honen akta Lehendakariarekin eta Idazkariarekin batera sina dezaten. Hau izango da

ERABAKIA:

"Estatutu Sozialetako 52. artikuluan 9. paragrafoan ezarritakoaren arabera, bilera honetan dauden __ (3) __ izendatzen dira, Batzar honen akta onartu eta sina dezaten, Lehendakariarekin batera".

3. SOZIETATEAREN 2016KO EKITALDIARI DAGOZKION URTEKO KONTUAK ETA KUDEAKETA-TXOSTENA, ETA, KASUA BALITZ, KONTU ETA KUDEAKETA-TXOSTEN BATERATUAK AZTERTZEA ETA, BIDEZKOA BADA, ONARTZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, eta Batzar Nagusiak bere iritzia eman aurretik, Kontseilu Errektoreak 2016ko ekitaldiko bere kudeaketaren gertaerarik garrantzitsuenak aurkeztuko ditu, eta baita Urteko Kontuak ere (indibidualak zein bateratuak) behar bezala auditoretza eginda.

Batzar Nagusiaren une horretan informatuko du Taldeko Lehendakariak 2017-2020 Plan Estrategikoaren aurrerapen-mailari buruz eta 2017ko ekitaldiko Kudeaketa Planari buruz.

Jarraian, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

1) "Eroski S.Coop.en Urteko Kontuak onartzea, eta baita 2017ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua".

2) "Eroski S.Coop.en Urteko Kontu bateratuak onartzea, eta baita 2017ko urtarrilaren 31n itxitako ekitaldiko Kudeaketa Txostena ere, Sozietateko kontu-auditoreek egiaztatua".

4. 2016KO EKITALDIKO EMAITZAK BANATZEA

Gai-zerrendako puntu honetan, 2016ko ekitaldian lortutako emaitzak banatzeko proposamena egiten da. Emaitzak positiboak izan dira (beren zenbatekoa 1.543.126,91 eurokoa da), eta aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzeko erabiliko dira.

Bestalde, 3.487.795,61 euroko Mendeko Finantza Ekarpenen interesak (hauek badira funts propioen parte) borondatezko erreserben kargura ordaintzeko erabakia hartzea proposatzen da. Ordainketa hori 2016ko Batzar Nagusian erabaki zen (orain gauden 2017ko ekitaldiari dagokiona ere bertan onartu zen), eta 2017ko urtarrilaren 31n egin zen ordainketa.

ERABAKIA:

1) "Estatutu Sozialetan adierazitakoaren arabera, 2016ko ekitaldiaren emaitza positiboan banaketa onartzea –emaitza horien zenbatekoa 1.543.126,91 eurokoa da–, honela:

Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak konpentsatzea	1.543.126,91 €
EKITALDIKO EMAITZAK GUZTIRA:	1.543.126,91 €

2) "Guztira 3.487.795,61 euroko zenbatekoa banatzea Erabilera Mugatuko Erreserba Funts Banagarrien kargura, zehazten diren helburu hauetarako:

2017ko urtarrilean ordaindu ziren eta funts propioen parte diren Eroskiren Mendeko Finantza Ekarpenen (EMFE) interesak ordaintzeko:	3.487.795,61 €
BORONDATEZKO ERRESERBEN BESTE APLIKAZIOAK, GUZTIRA:	3.487.795,61 €

5. 2017KO EKITALDIKO AUDITOREAK IZENDATZEA

KPMG beste urtebeterako berritzea proposatzen da, kontu indibidualentzat eta bateratuentzat. Erabaki hori Auditoretza eta Betetze Batzordeak (Kontseilu Errektorearen organo delegatuak) proposatuta hartzen da, horren legezko eta estatutuetakoko betebeharrak betez. Beraz, hauek dira proposatuko diren

ERABAKIAK:

1) "Eroski, S.Coop.eko Urteko Kontu indibidualen Auditore gisa, KPMG Auditores, S.L. auditoretza-sozietatearen (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean S0702 inskripzio-zenbakia duenaren) izendapena luzatzea, 2018ko urtarrilaren 31n amaituko den ekitaldiko Sozietatearen Urteko Kontu indibidualen auditoretza egin dezan".

2) "Eroski, S.Coop.eko Urteko Kontu bateratuen Auditore gisa, KPMG Auditores, S.L. auditoretza-sozietatearen (Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean S0702 inskripzio-zenbakia duenaren) izendapena luzatzea, 2018ko urtarrilaren 31n amaituko den ekitaldiko Sozietatearen Urteko Kontu bateratuen auditoretza egin dezan".

3) "Kontseilu Errektoreko Lehendakariari ahalmena ematea Auditoretzako Erakunde horrekin egin beharreko kontratazioa egin dezan, berari komenigarrien iruditzen zaizkion baldintzetan".

6. ESTATUTU- ETA LEGE-XEDAPENAK

6.1. Ekarpenei buruzko erabakiak.

a) "Bazkide Ohien Mendeko Finantza Ekarpinak" eskuratzea.

Bazkide baten baja gertatzen denean, bazkide horrek kooperatiban egindako ekarpinak erostea erabakitzen du Kontseilu Errektoreak. Erabaki horiek Batzarrek berretsi beharko ditu, 2006ko ekainaren 10eko Batzarrean onartutako Estatutu Sozialen aldaketan hala ezarri baitzen.

Era berean, Kontseilu Errektoreari baimena berritzea proposatzen da, eta, horrez gain, aurreko Batzarretik gaurkora bitartean baja eman duten bazkideen kapital soziala, "Bazkide Ohien Mendeko Finantza Ekarpinak" izenekoak alegia, garaiz aurretik erosteko ahalmena Kontseilu Errektorearen esku uztea.

Finantza Ekarpin hauek ezin dira parekatu Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMVk) gainbegiratu behar dituenekin. Aldiz, lehen bazkideen nahitaezko kapitaltzat hartzen ziren zenbatekoei dagozkie baja eragitean ekarpin hauek bihurtutakoak, eta legean eta estatutu sozialetan jasotako itzulketa-konpromisoari lotuta daude.

Horretarako, hauek dira botatuko diren

ERABAKIAK:

1) "Kooperatiban baja hartu duten bazkideen Bazkide Ohien Mendeko Finantza Ekarpentak eskuratu eta zorroan mantentzeko ahalmena izateko Kontseilu Errektoreak gaurko Batzarra arte, eta 2016an Batzar Orokorrak onartutako baimenaren arabera, hartutako erabakiak berrestea".

2) "Erabaki hau hartzen denetik Kooperatibaren hurrengo Ohiko Batzar Nagusia egiten den arte baja ematen duten bazkideen Bazkide Ohien Mendeko Finantza Ekarpentak eskuratu eta zorroan mantentzeko ahalmena Kontseilu Errektorearengan delegatzea, Estatutu Sozialetan arautzen diren termino eta baldintzetan, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bermeekin".

b) Sozietateak Mendeko Finantza Ekarpentak Autokartera-erregimenean eskuratzeko baimena.

Eroskik Finantza Ekarpentak jaulki zituen, eta 2002 eta 2007 bitartean merkaturatu zituen. Ekarpent horien jaulkipenari buruzko erabakietan, Eroskik konpromisoa hartu zuen merkaturatzean likidezia-maila jakin bati eusteko kapitalaren % 10aren baliokidea den zenbatekora iritsi arte tituluak eskuratzuz, existitzen diren tituluen trafikoa eskaintza eta eskari nahikoa sustatzeko xedearekin.

Konpromiso hau betetzen jarraitzeko, beharrezkoa da Batzar Nagusiak Ekarpent hauek eskuratzeko (nola zuzenenean hala sozietate filialetako baten bidez) Kontseilu Errektorearengan egindako delegazioa berritzea.

Horrela bada, helburu hori lortzeko, komenigarritzat jotzen da baimen hau berritzea, eta, honenbestez, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

1º) "Kontseilu Errektoreari baimena ematea, 2002, 2003, 2004 eta 2007ko Jaulkipenetako Mendeko Finantza Ekarpentak (MFEak) zuzenean edo bere taldeko edo lotetsitako beste edozein sozietateren bidez erosi eta zorroan mantendu ahal izan ditzan, gehienez Sozietatearen kapitalaren % 10aren balioko zenbatekoan (ondorio hauetarako MFEen jaulkipen guztien zenbatekoa barne hartzen da), egokitzat jotzen diren termino eta baldintzetan, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako bermeekin. Sozietateak erosten dituen EMFEen erosketako prezioak ezingo du izan EMFEek merkaturatzean izan duten azken prezioa baino, edota, bestela, edozein likidezia-erakunde argitaratzen duen kotizazio-prezioa baino % 50 txikiagoa eta ez handiagoa. Salbuespen modura, sozietateak likidezia-erakundeekin egindako edo egin beharreko edozein kontratuen erosketa-prezioa, likidezia-erakunde horiekin egindako kontratuetan edo egingo diren kontratuetan erabakitzen den erosketa-prezioaren berdina izango da. Sozietateari MFEak erosteko ematen zaion baimen honek 18 hilabeteko gehieneko epea izango du".

c) Lan-bazkide berrien nahitaezko ekarpentak eguneratzea.

Estatutu Sozialetako 36.7 artikulua bazkide berrien nahitaezko ekarpentak Kontsumoko Prezioen Indizearen (KPI) arabera eguneratzeko aukera aurreikusten du. Eta, bestalde, Euskadiko Kooperatiben Legeko

59.4 artikulua xedatzen du Batzar Nagusiak urtero finkatu beharko duela nahitaezko ekarpen horien zenbatekoa.

Hortaz, urtero bezala, 2017ko uztailaren 1etik aurrera sartuko diren bazkide berriek Sarrerako Kuota eta Nahitaezko kapital gisa jarri beharko dituzten zenbatekoak ezarri behar dira. Hainbat urtez KPIaren aldakuntza negatiboa izan ondoren, aurten iazko zenbatekoak eguneratu behar dira KPIarekin (% 1,6). Beraz, honako erabaki hau proposatuko da:

ERABAKIA:

"Lan-bazkideen Ekarpinak eguneratzea, Sarrerako Kuota gisa 2.082,14 euroko kopurua eta Kapital Sozialerako Nahitaezko Ekarpin gisa 8.328,56 euroko kopurua ezarriz eta, beraz, 2017ko uztailaren 1etik aurrera bazkidegai gisa sartzen diren bazkideek jarri beharreko Nahitaezko Ekarpin Totala 10.410,70 eurokoa izango da".

6.2. Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinak ordaintzea.

Estatutu Sozialetako 39 bis artikuluan ezarritakoa betez, urtero erabaki behar da ea Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinek ordainsaria sortzen duten ala ez. Kontabilitateko Nazioarteko Arauak indarrean sartu zirenetik sortutako betebeharrak bat da erabaki hau, Mendeko Finantza Ekarpinak Funts propioetat hartzeko.

2016ko Batzar Nagusian jada onartu zen 2017ko ekitaldiari dagozkion MFEen ordainketa. 2017ko ekitaldia 2018ko urtarrilaren 31n amaitzen da, eta ordainketa egun horretan egin behar da.

Aurten, 2018ko ekitaldiari dagokion ordainketa erabakitzea proposatzen da. 2018ko ekitaldia 2019ko urtarrilaren 31n amaitzen da, eta data horixe da ordainketa egin beharreko eguna. Hori guztia zirkulazioan dauden MFEen jaulkipena arautzen duten baldintzetan ezarritakoaren arabera egingo da.

Ondorioz, hau da proposatzen den

ERABAKIA:

Bakarra.- "2007an jaulki ziren eta Funts Propioen parte diren Mendeko Finantza Ekarpinen 2018ko ekitaldiari dagokion ordainketa onartzea. Ordainketa horren interes nominala eta zenbateko gordina jaulkipen-baldintzetan ezarritakoaren arabera kalkulatu beharko dira, eta 2019ko urtarrilaren 31n abonatuko da".

7. ERREKURTSO-BATZORDEA BERRITZEA

Bazkideei arau-hauste larri edo oso larriengatik irekitako diziplina-espedienteetan ezarritako zigorren kontrako errekurtsuak ebazten dituen kooperatibako organoa da Errekurtsu Batzordea, barne-bidea agortzen duena.

Bertako kide titularrak eta ordezkioak Batzar Nagusian hautatzen dira, botazio sekretu bidez. Eskubide osoko bazkide izan beharko dute, eta Estatutu Sozialetan ezarritako eskakizunak (antzinatasuna, kooperatibako esperientzia eta egokitasuna) bete beharko dituzte; gainera, beharrezkoa izango da hautagaiak bestelako kargu sozialik ez izatea.

Lan-bazkideen hiru ordezkariak eta bazkide kontsumitzaileen bi ordezkariak osatzen duten organo hau erdika berritu behar da urtero. Kasu honetan, bi hautagai izendatu behar dira, bat lan-bazkideen artean eta bestea bazkide kontsumitzaileen artean, Batzarra egingo den lokalera sartu aurretik egingo den bozketa sekretu bidez. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

"Egindako bozketaren ondorioz, bazkide hauek dira Errekurtsu Batzorderako izendatuak, estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko eperako:"

Bazkide kontsumitzaileak	Lan-bazkideak
Titularra	Titularra
Ordezkoa	Ordezkoa

8. JAGOLETZA-BATZORDEA BERRITZEA

Jagoletza Batzordea organo gainbegirale eta fiskalizatzailea da, Kooperatibako organo sozialek behar bezala funtzionatzen dutela bermatzen duena. Euskadiko Kooperatiben Legeak beharrezko ahalmen guztiak esleitzen dizkio organo honi, bere funtzioak behar bezala bete ditzan, baina kooperatibak hirugarrenen aurrean duen kudeaketan edo ordezkaritza inoiz kalterik eragin gabe. Administrazio-organoren edo bertako kideren baten kontra egindako aurkaratze judizialak edo kide horien kontratuen amaiera izango dira salbuespenak.

Organo honek kooperatibaren bizitza soziala zuzena eta gardena dela bermatzen die bazkideei, eta beste organo batzuetako hautagaien kasuan bezala, bertako kide izateko hautagaien egokitasun-profila egiaztatzen da, izango dituzten erantzukizunen arabera; eta kasu honetan ere, ezinbestekoa da hautagai horiek bestelako kargu sozialik ez izatea. Organoa osatzen duten hiru kideetatik bi bazkide kontsumitzaileen komunitatekoak dira eta bestea lan-bazkideen komunitatekoa.

Bi urtez behin Jagoletza Batzordeko kide guztiak berritzea dagokigu. Bazkide kontsumitzaileen artetik bi bazkide hautatu behar dira, eta lan-bazkideen artetik bat. Botazioa sekretuan egingo da, Batzarra egingo den lokalera sartu baino lehen. Azkenik, emandako botoen kontaketa egin ostean, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

"Izandako hauteskunde-emaitzaren ondorioz, bazkide hauek izendatu dira Jagoletza Batzorderako, estatutuetan ezarritako gehieneko bi urteko eperako":

Bazkide kontsumitzaileak	Lan-bazkideak
Titularra	Titularra
Ordezkoa	Ordezkoa

9. KONTSEILU SOZIALA BERRITZEA

Kontseilu Sozialaren —soilik lan-bazkideek osatzen duten organoaren— erdia berritu behar da aurten. Gogoratu Kontseilu Sozialaren funtzioen artean dagoela laneko alderdi guztiei buruz Kontseilu Errektorea informatzea, aholkatzea eta kontsultatzea, eta kasu bakoitzean jarrera arrazoitu bat hartu behar duela.

Hauteskunde-prozesua ohikoa izan da, alegia bi itzuliko botazioa egin da lan-bazkide guztien artean. Prozesu bikoitz hau bukatutakoan, egindako botazioen arabera ordenatzen ditu hautagaiak Kontseilu Errektoreak, eta Batzarrari zerrenda bakarra proposatzen dio. Emaitzen arabera, boto gehien jaso duten hautagaiak titular gisa agertuko dira zerrenda horretan eta hurrengoak ordezeko gisa. Horrela, Batzar Nagusia izango da erabakia berretsiko duena, hautaketa-prozesuari behin betiko balioa emanez.

Ondorioz, eta Euskadiko Kooperatiben Legean ezarrita dagoen bezala, lan-bazkideek Kontseilu Soziala berritzeko egindako botazioetatik ateratako hautagaien eta ordezekoen hauteskunde-emaitza berresteko aurkezten du Kontseilu Errektoreak, hautagaitza bakoitzak jasotako botoen arabera ordenatuta:

Zonak	TITULARRA		ORDEZKOA	
	IZENA	ZENTROA	IZENA	ZENTROA
1				
2				
3				
4				
5				
6				
7				
8				

10.KONTSEILU ERREKTOREARENGAN AHALMENAK DELEGATZEA

Gai-zerrendaren puntu honetan, eta legez eta estatutuz ezarritako betebeharrak hobeto betetzeko, ahalmenak Kontseilu Errektorearengan delegatzeko erabakia proposatzen du Batzar Nagusiak, ohikoa den bezala, bertako edozein kidek izan dezan eskritura publikoa egilesteko (eskritura horretan Batzarrak hartutako edozein

erabaki jaso ahal izango da), eta dagokion agintaritza, administrazio eta erregistroen aurrean ziurtatzeko ahalmena.

Beraz, hau da proposatuko den

ERABAKIA:

Kontseilu Errektoreko kideetako bakoitzarengan eta Letradu Aholkulariarengan delegatzea, beraietako edonork, Batzar Nagusiak hartutako erabakiak erabat betearaztea lortzeko, komenigarriak edo beharrezkoak diren garapeneko edo betearazpeneko jarduketa edo kudeaketa guztiak (dagozkion kontratu eta dokumentuak komenigarritzat jotzen dituen klausula eta baldintzekin sinatzea barne) erabaki eta egin ahal izateko ahalmena. Era berean, delegatu egiten dira: aipaturiko erabakiak interpretatu, zuzendu eta osatzeko ahalmena; berak hautatutako Notarioaren aurrean agertu eta erabakiak publiko egitekoa, horretarako dagozkion eskritura publikoak egiletsiz (akatsak konpontzekoak, argitzekoak eta zuzentzekoak barne); erabakiak erabat eraginkorrak izateko beharrezkoak edo komenigarriak diren jarduketa guztiak egitekoa, horretarako legearen arabera eskatu daitezkeen dokumentu guztiak erantsiz. Halaber, dagokion Erregistroetan gordailutzea eta/edo inskribatzea lortzeko beharrezkoak diren gestio guztiak egiteko ahalmena delegatzea, inskripzio partziala eskatzeko ahalmena barne, Erregistro horiek edo beste edozein erakunde edo agintek emandako hitzezko edo idatzizko kalifikazioak ikusita.

11.NORBERAK LEKARKEENA
